

Espainiako Txirrindulari Itzulia

Bontempi Elliot baino azkarragoa izan zen Santandarreko sprintean

Kelme taldeko Nestor Morak 200 kilometroko ihesaldia burutu zuen


Guido Bontempi, Carrera taldeko gizona, izan zen garailea atzo Santo Domingon hasi eta Santanderren amaitu zen etapari. Bontempi eta beste zortzi gizonak segundu batzuetako alde atera zioten tropel nagusiari eta azken sprintean italiarra izan zen azkarrena, SEUR taldeko Malcom Ellioten aurretik.

RAMON BASALDUA / BILBO

Nestor Mora izan zen atzoko protagonista nagusia. Kelme taldeko gizonak hamalagarren kilometroan ekin zion ihesari Leanizbarrutiarekin batera eta helmugarako sei kilometro geratzen zirenean harrapatu zuen tropelak.

Espainiako Itzuliaren 46. edizio hau etapa erabakikorretan sartu da jadanik. Valdezcarayko erlojupeko etapa gogorra jokatu ondoren, sailkapen nagusiko faboritoek ez zuten handirik bete atzokoan, izan ere gaurko etapari, Fito eta Covadonga-ko lakuak igo beharko bait dituzte. Hori dela eta minutu asko galduak dituzten txirrindulariak izan ziren garaipena lortu nahian ahalegindu zirenak.

CLAS taldeko Alberto Leanizbarrutia eta Kelme taldeko Nestor Mora izan ziren tropela utzi eta ihes egin zutenak. Bi gizon hauek ez ziren garrantzitsuak sailkapen nagusiari dagokionez eta tropelak ez zuten gauza handirik egin bere erritmoa bizkortzeko. Mora colombiarra izan zen Portillo de la Sia gainetik lehen postuan pasa zena Leanizbarrutiaren aurretik. Tropela lau minutura pasa zen. Haizeak gogor jotzen zuen eta zatiketa garrantzitsua egin zen tropel nagusian, izan ere Fabio Parra atzeko taldean geratu bait zen. Dena den,



Elliot eta Bontempiren arteko sprint gogorra italiarraren alde erabaki zen.

kilometro batzuk beranduago, Valdezcarayko erlojuaren kontrako etapa irabazi zuen Parrak aurreko taldearekin bat egin zuen bere taldekideek egindako lanari esker.

MORA NAHI ETA EZIN Alberto Leanizbarrutia bizkaitarrak ezin izan zuen Nestor Morak jarritako erritmoa jarraitu Alisas mendateko maldetan. Kelme taldeko colombiarra izan zen lehena gainean eta 2'41 segundura Pablo Rincon, Luis Herrera eta Henry Cardenas. Morak betetako lana oso gogorra izan zen eta bere erritmoa gero eta ahulagoa zen. Atzetik, zortzi gizo-

nek tropela utzi eta colombiarra harrapatzea jo zuten. Euren artean Guido Bontempi, Malcom Elliot, Enrique Aja eta beste sei gizon.

PDM taldekoak ziren tropelaren buru, baina beraiek ezarritako erritmoa gogorra zen arren, ezinezkoa gertatu zitzaizen ihesean zihonan taldekoa harrapatzea, Van Poppel eta Raabentzat sprinta prestatzeko. Guido Bontempi eta Malcom Elliot ziren talde horretako txirrindulari azkarrenak eta euren artean erabaki zen atzoko etaparen irabazlea. Azkenean, itzuli honetan lortzen duen bigarren garaipena eskuratu zuen Carrera taldeko gizonak.

Elliot: «Denbora larregi egon naiz Bontempiren gorpila zaintzen»

RAMON BASALDUA / BILBO

Malcom Elliot britainiarra izan zen atzoko etapako galtzaile nagusia. Gonzalez Linaresen zuzentzen duen SEUR taldeko gizonak ez du orain arte garaipen bakar bat ere lortu Espainiako Itzuli honetan, eta atzokoa, lehen esprinta irabazteko aukera ezin hobe izan zen. Baina Elliotek ezin izan zion Guido Bontempik egindako erasoari erantzun eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. «Ba dut haserre egoteko arrazoirik. Etapa irabazteko aukera ezin hobeak nituen baina azkenean ezin izan dut Bontempi gainditu. Egia esateko, garaipena lortuko nuelakoan nengoen, sasoian bait nago. Dena den, denbora larregi egon naiz Bontempiren gorpila zaintzen».

Elliot haserre zegoen arren, ez zen gauza bera gertatu Guido Bontempirekin. Carrera taldeko txirrindulari beteranoak, Vueltako bigarren garaipena eskuratu zuen atzokoan Santanderren. «Gaurko etapa oso gogorra izan da. Bestalde, igo behar izan ditugun bi mendateak oso gogorrak ziren eta asko sufritu izan dut aurreko taldekoei segitzeko», esan zuen Guido Bontempik helmugan.

Sailkapenak

Etapako sailkapena

1. G. Bontempi (Carrera) . 5.40.05
2. Malcolm Elliot (SEUR) d.b.
3. A. Da Silva (Artiach) d.b.
4. Christophe Manin (RMO) . d.b.
5. Gerrit De Vries (Buckler) .. d.b.
6. Enrique Aja (Paternina) d.b.
7. Gainetdinov (Lotus) d.b.
8. Anton Renard (Artiach) 8ra.
9. Miguel Diaz (Kelme) d.b.
10. Nestor Mora (Kelme) d.b.
11. Uwe Raab (PDM) 32ra.
12. Jesper Skibby (TVM) d.b.
13. Van Der Poel (Tulip) d.b.
14. Steven Rooks (Buckler) d.b.
15. Andres Ripoll (Wigarna) .. d.b.
16. Jose Pedrero (Mavisa) d.b.
17. J. Jose Martinez (Wigarna) . d.b.
18. F. Carvalho (Paternina) d.b.
19. Iñaki Gaston (CLAS) d.b.
20. Dave Rayner (Buckler) d.b.
21. Juan Guillen (Mavisa) d.b.
22. Van Orsouw (Panasonic) ... d.b.
23. Jesus Montoya (Amaya) d.b.
24. Marcel Arntz (Telekom) d.b.
25. Melchor Mauri (ONCE) d.b.
26. Van Der Laer (Tulip) d.b.
27. Pascal Lino (RMO) d.b.
28. Frederic Brun (RMO) d.b.
29. Udo Belts (Telekom) d.b.
30. O. Hernandez (Ryalcao) d.b.
31. Piotre Ugrumov (SEUR) ... d.b.
32. Eduardo Chozas (ONCE) .. d.b.
33. Diaz Zabala (ONCE) d.b.
34. E. Bouwmans (Panasonic) . d.b.
35. Fede Etxabe (CLAS) d.b.
36. Jose Sanchis (SEUR) d.b.
37. Alvaro Sierra (Ryalcao) d.b.
38. Fernando Mota (Sicasal) ... d.b.
39. Tom Cordes (PDM) d.b.

Sailkapen orokorra

1. M. Mauri (ONCE) 58.07.56
2. M. Lejarreta (ONCE) 1.43ra
3. Fede Etxabe (CLAS) 2.16ra
4. M. Indurain (Banesto) . 2.33era
5. Fabio Parra (Amaya) 2.36ra
6. Raul Alcalá (PDM) 3.27ra
7. P. R. Cabestany (CLAS) . 4.08ra
8. A. Fuerte (ONCE) 4.25ra
9. E. Chozas (ONCE) 6.23ra
10. O. Rincon (Kelme) 6.39ra
11. Tom Cordes (PDM) 6.55era
12. Piotre Ugrumov (SEUR) . 8.13ra
13. Steven Rooks (Bucker) .. 8.31ra
14. Ivan Ivanov (SEUR) 9.13ra
15. Jesper Skibby (TVM) 9.36ra
16. L. A. Herrera (Ryalcao) . 9.52ra
17. Iñaki Gaston (CLAS) .. 10.24ra
18. L. Cubino (Amaya) 10.38ra
19. Jon Unzaga (SEUR) 10.40ra
20. F. Philipot (Banesto) ... 12.13ra

Erregulartasuna

1. Uwe Raab (PDM) 137
2. Melchor Mauri (ONCE) 95
3. Jesper Skibby (TVM) 78

Mendiko Saria


1. Luis Herrera (Ryalcao) 85
2. Fabio Parra (Amaya) 55
3. Ivan Ivanov (SEUR) 51

Tarteko Helmugak


1. M. Angel Iglesias (Mavisa) ... 9
2. Nestor Mora (Kelme) 5
3. Manuel Guijarro (Mavisa) 4

Taldeakako Sailkapena

1. ONCE 174.29.20
2. CLAS 11.10era
3. Ryalcao 18.10era
4. Banesto 18.31ra
5. SEUR 18.48era



LAGOS DE COVADONGA arteko 194 kilometroak erabakiorrak izango dira. Santanderetik irten eta aurreneko mailako Monte del Fito arte aldapa handirik gabeko bide gora-beheratsua topatuko du tropelak, baina mendatea une aproposa izango da aurreneko erasoak jotzeko. Jarraian Lagos de Covadonga mitikoak etorriko bait dira, Vueltako etaparik gogorrena osatzeko. Valladolideko erlojupeko probaren zain, eskalatzailak denbora ateratzen saiatu beharko dute gaur Lagos de Enolera bidean.



Nestor Mora, etapako heroia.